

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Axen Egaña Santamaria

*Donostia,
Gipuzkoa
(1937)*

Aurkibidea



Biografia



Bilbon jaio zen, gerrak hartaratuta. Ama Donostiakoa zuen, eta aita Mutrikukoa; itsasoan zegoen hura, Terranovan. Bilbotik Bartzelonara eta handik Donibane Lohizunera joan ziren. Beste aldera pasatzen saiatu zen batean, ama hil egin zuten, mukan. Senitartekoekin bizi izan zen; eskolan eta kalean dena frantsesez egiten zuen, eta euskararik ez zuen ikasi. Pasai Donibanera joan zen 13 urterekin, aitarengana. Berriz ezkondu zen aita, eta Donostiara joan ziren bizitzera, Parte Zaharrera lehenengo eta Herrerara gero. Elizaranen ibili zen mojekin, eta ondoren Parron akademian idazkari izateko ikasi zuen. Josten ere ibili zen, Herreran. "Industrias Españolas" lantegian egin zuen lana, "Contadores" bezala ezagunagoa. 1962an Iñaki Beobiderekin ezkondu zen, eta sei seme-alaba dituzte. Jarrai antzerki taldean ibili ziren biak, eta Ez dok Amairuren diskoak banatzen ere bai. Euskal Dantzarien Biltzarreko idazkari ere izan da urte askoan. 45 urteren ondoren antzerkia egiten hasi zen berriro duela urte pare bat: "Amamaren memoria" antzezlan.

Zintak

DON-057

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-11-10
- **Iraupena:** 78 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Gerra garaian jaioa, Bilbon

- **Erref:** DON-057/002
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:00:10. **Bukatu:** 00:02:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

1937ko maiatzean jaioa, Deustuan. Gerra garaia zen. Bartzelonara joan ziren gero, itsasontzian, eta handik Donibane Lohizunera. Aita itsasgizona zen. Ama donostiarra zen eta aita mutrikuarra.

2. Donibaneko giroa, erabat frantsesa

- **Erref:** DON-057/003
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:02:17. **Bukatu:** 00:04:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

14 urte arte egon zen Donibane Lohizunetik bizitzen. Frantses heziketa izan zuen. Aitona itsasoan zebilen, eta ez zuen frantsesik ikasi; amonak bai. Lekeitiokoak ziren aitona-amonak; 1931n joan ziren hara bizitzera. Kalean ez zuen euskararik entzuten. Arrantzaleek bai, bazekiten.

3. Ama mugan hil zuten

- **Erref:** DON-057/005
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:05:28. **Bukatu:** 00:07:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Alaba bakarra da. Ama mugaz bestaldera joaten saiatu zen, aitarengana, eta tiroz hil zuten. Aiton-amonekin bizi izan zen bera, aita bestaldetik erreklamatu zuen arte. Hondarribira eraman zuten lehenengo. Pasai Donibanera joan zen bizitzera.

4. Umetako jolasak

- **Erref:** DON-057/007
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:08:09. **Bukatu:** 00:09:31

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Sokasaltoan ibiltzen zen Donibanen, eta harrapaketan. Ez zen asko ibiltzen kalean. Dena frantsesez zen, eta bera haientzat espainola zen, bera hortaz ohartzen ez bazen ere.

5. Pasai Donibanetik Donostiara

- **Erref:** DON-057/008
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:09:31. **Bukatu:** 00:13:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Pasai Donibanera joan zenean, euskara ikasten hasi zen. Partikularrera ere joan zen. Aita ezkondu zenean, Donostiara joan ziren bizitzera. Erratzukoa zen amaordea, sukaldari ibilia etxe dotore batean. Parte Zaharrera joan ziren bizitzera; Elizaranera joaten zen eskolara, mojekin, eta Parron akademian idazkaritza ikasten hasi zen. Elizaranen Ansorenak erakusten zuen musika.

6. Euskara ikasten eta antzerkia egiten

- **Erref:** DON-057/009
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:13:20. **Bukatu:** 00:16:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

<p>Euskara nolatan ikasi zuen, senargaiarekin. Antzerkia egiten ere hasi zen. Jarrai antzerki taldea. 24 urterekin ezkondu zen. Bi talde zeuden: Escuela de Declamación eta Jarrai, modernoagoa. Itzulpenak egiten zituzten. Haurdun geratu zenean, antzerkia utzi zuen. Sei seme-alaba izan zituen.</p>

Transkripzioa

- Eta zuk euskera ikasi zenun gero...?
 - Gero esan dezaket nik ya nere senargaiakin hasi nintzen eta, orduan, klaro, bea euskeraz dana eta ni´re bai hasi nintzen berekin. Gero hasi giñan antzerkia egiten. Horregatik esaten zun... Orduan esaten zan "Teatro leído", ez? Irakurketa... bueno, antzerki... irakurrita. Eta hor egiten genun diputazioan badago zea bat, `Biblioteca Julio Urquijo´ ta hor egitten genun, ba, mostradore haundi bat bezela ta irakurri itten genun antzerki danak eta jendea ikusten egoten zan. Eta oso ondo. Bai, bai. Eta gero poliki-poliki

gero jua nitzan klasetara ere bai euskera ikasteko, horrela. Eta gero hortikan hasi giñan gero ya antzerkia egiten. Zeon txapelketa bat, ba, antzerkia aber nor... nor aurkezten zan antzerkia itteko ta hola, ta, bueno, “aizu, egingo deu beste pauso bat”. Eta orduan hasi giñan berriz antzerkia egiten. Ez ya irakurriz, baizik antzezten.

- Orduan sortu zan `Jarrai´?

- Bai, orduan sortu zan `Jarrai´ antzerki taldea. Bai. Badakizu, e? Bai, bai. Eta oso ondo. Gero ya, klaro, ya gero ni ezkondu nintzen ya 24 urtekin ta, klaro, [...] denbora gutxi dago, ez? Eta antzerkia egiten genun. Egin genittun antzerki... bueno! Gaiñera, hemen zeuden bi talde, ez? Maria Dolores Agirren... [izaten da] `Escuela de Declamación´ deitzen zan orduan eta gu `Jarrai gazteak´, pixkat bultzatzen eta pixkat borrokilloak, ez? Baiña nahi genun pixkat antzerkia ez betiko antzerkiak, baizikan itzulpenak; pues, `El zoo de cristal´ de Tennessee Williams, `El comprador de horas´... Gogoratzen naiz, Txaro Arteaga in zun, gaiña, hor paper zoragarria antzerki hortan. Gero Gabriel Arestin obrak ere bai egin genittun. Osea, horregatikan beste [...] bat. Gero Piarres Larzabalen obrak ere bai egin... Oseake, esan nahi det nahiko... Baiña ze gertatu zan? `El zoo de cristal´ ikasten ari giñanean ni haurdun geldittu nitzen eta hor utzi nun nere antzerki lana esan dezakegu. Ya ezin nun jarraitu, klaro. Ta gero etorri zian sei, sei seme-alaba, hiru nexka ta hiru mutil. Lehenengo hiru nexka eta gero hiru mutil.

- Eta ze urtetan izan zenun lehenengua?

- 62an.

7. `Jarrai´ antzerki taldea

- **Erref:** DON-057/011
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:19:01. **Bukatu:** 00:20:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Jarrai antzerki taldea. Iñaki Beobide, orduko bere senarra, zen zuzendaria. Liburuak zentsuratu egiten zizkieten.</p>

Transkripzioa

- Eta zuek hasi ziñetenian `Jarrai´ antzerki taldiakin, orduan zure senarra zana zan zuzendaria.

- Bai. Bai. Nola esaten zan, ba... pues hoi. Lehenguan galdetzen ziaten: “Eta nola zuzendaria?”. Bueno, pues, aber, nor zan pixkat karakter gehiago... arduratzen zana, ta bea jarri zan. Ta gero espetxean egon zan ta jarri zan beste bat. Ta bitartean jarraitzen zan antzerkia egiten. Ta gero ya etorri zan [...] eta hori dana ta ya utzi genun ta gero ya puf! ya alperkeriz jartzen zea, berriz hasi ensaiotan ta horrela? Ta ya utzi in genun. Bai, baiña etapa polita. Bueno, beti izaten dia holako etapak, ez? [Osea, polita izaten diala].

- Eta antzerkiyaz aparte bazeon frankismoan kontrako giro bat, ez?

- A, bai, bai, bai, bai, bai. Oseaske, gu, adibidez, nere senarra espetxean zeonian, bialtzen genun libruak itzultzeko ta horrela, ez? Eta, bueno, “no autorizado” jartzen zioten ta ez zioten uzten irakurtzen. Eta gero hamen ere baimena emateko eta “tampoco”. “Baiña hau erderaz egiten da!”, “Bai,

baiña euskeraz beste sentido bat dauka”, t aez ziguten baimenik ematen askotan antzerkia egiteko. Ta Espaiñin barruan erderaz egiten zan, baiña euskeraz beste sentido bat ematen zioten ta orduan ya... Hori ere bai da, e? Eske hasten zea hola beidatzen... Bai, bai, bai.

8. Euskal kulturen murgilduta

- **Erref:** DON-057/012
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:20:32. **Bukatu:** 00:24:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

<p>Joxe Migel Zumalaberekin ikasi zuen euskara. Jarrai antzerki taldekoek irratirako programak ere egiten zituzten. Karmele Esnal. Etxean egiten zituzten grabazioak. Euskara egarritz zegoen jendea. Entseguak non egiten zituzten. Dekoratuak alokatu egiten zituzten. Principal antzokian antzezlanak egiten zituzten igande goizetan.</p>

9. Dantzarien Federazioan lanean

- **Erref:** DON-057/013
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:24:29. **Bukatu:** 00:27:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Dantzarien Federazioan hasi zen lanean, eta 31 urte egin zituen han, idazkari moduan. Dantzazalea izan da beti. Eskolarteko txapelketak antolatzen ibili da. Dantzari onak irten dira. Senarraren ama beraiekin bizi zen. Borondatezko lan asko egiten zen.

10. Gerraosteko giro mugitua

- **Erref:** DON-057/016
- **Iraupena:** 0:05:24. **Hasi:** 00:28:28. **Bukatu:** 00:33:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Euskal jaietara joaten ziren: Aralar, Hernio, Deba... ez ziren guztiz legezkoak, baina inoiz ez zen ezer gertatu; umeekin joaten ziren. Manifestazioetan ez zen ibiltzen, baina beldur pixka bat bai pasatu zuela. Ez Dok Amairuren kantaldiak. Grisak. Biarritzeko dantza talde bati ez zioten utzi ikurrina ateratzen dantzan. 'Euskadi' eta 'Euskal Herria' izenen zentzua, lehen eta orain.

11. Umeak kalean jolasten

- **Erref:** DON-057/018
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:33:56. **Bukatu:** 00:34:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Parte Zaharreko giroa asko aldatu da; lehen umeek kalean gehiago jolasten zuten, euren kasa.

12. Elizaren indarra

- **Erref:** DON-057/019
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:34:52. **Bukatu:** 00:37:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Maiatzeko loreak eta larunbat goizetako mezak. Mantelinarekin joaten ziren mezetara; galtzarik ezin zuten jantzi. Latinez ziren mezak. Dotrina buruz ikasten zuten, ulertu gabe. Mojekin egunero errezatzen zuten. Mojen zigorrak: belauniko, eskuetan liburuak jarrita. Beti norbait jartzen zuten erratza pasatzen.

13. Elizaren indarra II

- **Erref:** DON-057/021
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:38:05. **Bukatu:** 00:40:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Lutoa. Ama hil zitzaionean, ez zen beltzez jantzi; Iparraldean umeak ez, nagusiak bai jantzten ziren beltzez. Mojak antzekoak ziren alde guztietan. Jaurnartzea Donibane Lohizunen egin zuen lehenengoa, eta bigarrena Pasaian. Kandelarekin istripua izan zuten.

14. Muga pasatzen, umetan

- **Erref:** DON-057/023
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:40:10. **Bukatu:** 00:41:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Gerra garaiko oroitzapena: golkoan eskutitza zuela pasatzen zuen muga. Adinekoek ezin zuten pasatu.

15. Euskara galarazita eskolan

- **Erref:** DON-057/025
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:41:15. **Bukatu:** 00:42:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Senarraren ama Zumaiakoa zen. Mojetan ibilia, euskaraz hitz eginez gero txanpon bat ematen zieten, elkarri pasatzeko. Piarres Larzabalek idatzitako antzezlanean dator hori. Gerra aurrean ere euskara debekatua zegoen eskola batzuetan.

16. Parte Zaharretik Trintxerpe aldera bizitzera

- **Erref:** DON-057/027
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:42:33. **Bukatu:** 00:45:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Ekonomia eta industria » Boom industrialak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aitak itsasoan jarraitu zuen lanean. Parte Zaharra oso hezea zen, eta sarri gaixotzen zenez, Herrerara joan ziren bizitzera. Tranbian joaten zen eskolara. Ezkondu zenean bueltatu zen Parte Zaharrera. Abesbatzean zebilen Trintxerpen. Dantza ere egiten zuen. Don Serafin Esnaola apaiza. Galiziarrek integratu egiten ziren; askok ikasi zuten dantza suelta.

17. Dantzarien biltzarra Iparraldean eta Hegoaldean

- **Erref:** DON-057/028
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:45:52. **Bukatu:** 00:48:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Dantza Federazioa 1968an jarri zuten martxan, eta ez zieten baimenik eman nahi. Iparraldean ere bazegoen; handik ekartzen zituzten aldizkariak. Guardia Zibilaren kontrola, lehenengo dantzari egunean. Beldurrez ibiltzen ziren. Iparraldean ikurrina folklorea zen; Hegoaldean, debekatua zegoen. Isunak jartzen zizkieten ikurrina ondoan izateagatik. Burgosko prozesua gertatu zenean, dantzaldia bertan behera utzi zuten, eta isun handia jarri zieten horregatik.

18. Ez Dok Amairuren garaia

- **Erref:** DON-057/029
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:48:39. **Bukatu:** 00:50:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Musika
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Benito Lertxundiri ere isuna jarri nahi izan zioten, kontzertu batean estrofa bat gehiago kantatu zuela eta. Ez Dok Amairu taldeak lan handia egin zuen. Aurretik zebiltzan musikariak aipatzen ditu. Arantxa Gurmendiren taldea.

19. Erreteriar dantzara

- **Erref:** DON-057/031
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:50:35. **Bukatu:** 00:53:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Trintxerpen egiten zuten bizimodua, Herreran bizi arren. Zinemara joaten ziren, Serafin Esnaola apaizarengana. Erreteriarra joaten hasi ziren gero, dantzarara, tranbian edo topoan. Diru gutxi zuten; bonba bat erosi eta zinemara joaten ziren.

20. Ezkontzean lana utzi beharra, 1961ean

- **Erref:** DON-057/032
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:53:05. **Bukatu:** 00:55:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

<p>Industrias Españolas-en egin zuen lana, ezkondu aurretik. Mirakruz gainean. Ur kontagailuak egiten zituzten han eta espoletak, bonbak egiteko (Mexiko eta Venezuelarako). 2.000 langile ziren. Herreran 4-5 lantegi handi zeuden. 1961ean lana utzi behar izan zuen, derrigortuta, ezkondu egin zelako. 1962an aldatu zuten legea, baina ez zen lan hartara bueltatu.</p>

21. Ez Dok Amairuren gainbehera

- **Erref:** DON-057/033
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:55:21. **Bukatu:** 00:57:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Ez Dok Amairuren diskoak banatzen ibili zen. Arrakasta zuten. Ez Dok Amairuren beherakada nola hasi zen, politika kontuengatik. Mitinetara kantaldietera baino gehiago joaten zen jendea. Taldekide batzuk aipatzen ditu: Antton Balberde, Oskarbi...

22. "Contadores"-en lanean; Pasaia inguruko lantegiak

- **Erref:** DON-057/034
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:57:41. **Bukatu:** 01:00:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

<p>Industrias Españolas lantegiari "Contadores" esaten zioten (ikus mapan; gaur egun kultur zentroa da). Emakume asko zebilen han lanean, pieza txikiak egiten. Idazkari ibili zen bera, sei urtean. Michelin lantegian ere emakume asko zebilen lanean. Ramon Vizcaino lantegian hozkailu industrialak egiten zituzten. Luzuriaga lantegia ere bazegoen, metalurgiakoa.</p>

23. Herrera nolakoa zen lehen

- **Erref:** DON-057/036
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:01:23. **Bukatu:** 01:03:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Orain baino etxe gutxiago zegoen Bidebietan. Gaiztarro egin gabe zegoen; villa bat zen, bi porteriarekin. Ezkerrean hiru etxe zeuden, eta han bizi ziren. Baserriak ere bazeuden, hiru. Tiraketa lekua ere bazen. "Guardaplata" zuen izena bere etxeak; Ameriketatik bueltan zilarra han gordetzen ei zuten.

24. Altza nola aldatu den; mendira joaten ziren handik barrena

- **Erref:** DON-057/037
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 01:03:13. **Bukatu:** 01:07:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Altza eta Intxaurren ere izugarri aldatu dira. Pena ematen dio. Altxatik joaten ziren mendira, ogitartekoarekin. Herrera Altza herriko parte zen sasoi batean. Herrerratik Altzarako bidean etxe gutxi zeuden; aita kontatzen zion jende asko hil zutela han gerra sasoiaren, eta belarra gorria egoten zela. Astigarragako bentaraino joaten ziren oinez Altxatik; han ogitartekoa jan, gereziak hartu arbolatik, eta buelta. "Txirukak" erabiltzen zituzten mendirako, botak, eta gonarekin beti. 22 urte ingururekin galtzak egin zituen. Jostea gustatzen zitzaion.

25. Jostea eta euskal jantziak afizio

- **Erref:** DON-057/039
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 01:07:56. **Bukatu:** 01:10:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Herreran josten ikastera joaten zen egunero, Amparito jostunarengana. Afizioz jarraitu du josten, etxerako. Euskal jaietara txaleko "lekeitiarra" eramaten zuten lehen, eta halako bat egiten ari da biloba batentzat. Gipuzkoako jantziekin erakusketak jartzen ere ibili da.

26. Baserritar jantzi tradizionalak nolakoak ziren

- **Erref:** DON-057/041
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 01:10:47. **Bukatu:** 01:14:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Jantzien txapelketetan epaimahaian egon izan da. Zapi eta mantal beltzak adinekoek eramaten zituzten, gazteek argiagoak. Azken urteetan ikusten diren jantziak.

27. Baserritar jantzi tradizionalak nolakoak ziren II

- **Erref:** DON-057/042
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 01:14:30. **Bukatu:** 01:17:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Lur koloreak eramaten ziren hemen, eta ez biziak. Gona gorrien jatorria; Arabara lanera joaten ziren neskei artilezko oihal gorria ematen zieten. Botoien garrantzia. Tela gutxi izaten zen lehen, eta herri erdi berdin jantzita ibiltzen zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com